

Tere Irastortza

EIEKO LEHENDAKARIA ETA IDAZLEA

## Agur eta ohore, Txillardegi!


**I**zuetak deskribatzen zuen eremua bezalakoa zen euskal literaturarena: otadi mardul, txilardi zabal, isasti handi. Gainerakoa eremu latz. Garai hartan, Txomin Agirrerren *Garoaren* ostean euskaraz irakurri nuen hurrengo nobelak *Elsa Scheleen* izena zuen.

Ordurako, jakina, Txillardegik bide luzea egina zeukan. Batetik euskara ikastea erábaki zuelako. Bestetik euskaraz bizitzea erabakia zuelako. Euskal literatur historian ardatztzat hartua izan den *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratua zuen... eta hizkuntzari buruzko hamaika burutapen eta lanetara murgildua ere bazen, nik ez banekien ere. Harrez gero ere Txillardegi bide urratzaile aparta izan da.

Txillardegi idazle eta hizkuntzalari da. Hizkuntzalaritzan eta beste hainbat alorretan saiakerari euskaraz tinko heldu zion. 60-70eko hamarkadako hizkuntzalari gehienek, eta aurrekoek ere –R.M. Azkueren Gramatika salbu, akaso– erdara erabili ohi zuten hizkuntzaz aritzeko. Txillardegiri esker ikasi genituen euskaraz euskal fonetika eta fonologiak, euskara batuari buruzko hainbat gorabehera. Berak zabaldu zituen soziolinguistikako bideak, beste hainbat bide bezala, eta bera izango zen Euskal Herrian Euskaraz lelopean, euskaltzetasuna eta lurraldetasunaren kontzeptuen inguruan, abertzaletasunaren praxi politikoan kabitzen ez zen/den errealitate bati bidea irekitzen lehena.

Txillardegi, niretzat, idazle eta hizkuntzalari izan da. Eta oroz gain hitzeko gizona. Hizkuntza eta pentsakeraz hausnartu zuelako, batetik, eta bestetik, hitza bera ekintza bilakatzeko egindako ahaleginengatik. Hitza izan du ekinbide, euskara ekintza. Gure arteko ez balitz, honez gero, idazle *engagé* horien arteko zerrenda errespetagarri horietako batean sartua izango litzateke.

Hitza ekintzarekin ordezkatu nahi izan duen inguru sozio-politikoan, haatik, garesti ordainarazi nahi izan zaizkio, beti, Txillardegiri, bere hautu politikoak. Urte askoan irakurketa politizatua bakarrik eskaini izan zaio. Ira-



ALBERTO ELIOSEGI

kurketa politizatua: esandakoa estaltzera etorri dena, esan nahi dut, sorkuntz-lanen adiera literalena ere estali duena. Esaten zuela esaten zuela, esaten duela esaten. Batzuentzat gorriegi, besteentzat abertzaleegi. Pentsamendua askatzen asmatu ez duen gizarte honetan, beti norbere posizioak beste baten aurkakotzat bezala definitzen ohitua dagoen herri honetan, debekatua bide dago norberak ez bezala pentsatzen eta sentitzen dutenak estimatzea eta maitatzea; oñaztar eta ganboatarren artean bezala etsaigoa elur malutak baino ugariago dela sinistuta.

Baina, bere garaiak behar zuen literatura, sarri, bete-betea asmatu duen idazlea ere bada, eta ez nuke honetaz ahaztu nahi. Bere nobela bakoitzak pausaleku bat eskaini ohi zion garaiko literaturazaleari. Gerora, egia esan, etorri ziren/dira beste idazle asko, euskal literatura maite dugunon egarria asetzen laguntzen dutenak. Baina, orain bere nobelak berrirakurtzean berriro bere maitutza aldarrikatu nahi dut, ikusten baitut zein garrantzizkoa izan zen hizkuntza-sena ondo garatua zuen idazlearen gidaritzak euskal literatura modernoaren hasiera haietan eta harrituta geratzen naiz, nabaritzean orain dela 30-40 urte egindako hizkuntza-hautapenak ez direla inolaz ere zaharkitu.

Ez dira zaharkitu Txillardegik planteatutako hainbat galdera eta bide ere. Eta gogoan ditut 1956an *Euskera* Euskaltzaindiko aldizkariaren orrietan idatzitako *Karta idigia* hartako bi galderak. "Nork gisara diraute, oraindik ere. "Nork aztertzen ditu antziñako izkribatzal-leak?" galdetzen zuen eta geroago esaten "Osakuntza andia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko".

Bideak urratuak daude, baina saiatu eta erratu, erratu eta ikasi, saiatu eta asmatzen jarraitu beharrean gaude.

Horretan hainbat lanetan bete-betea asmatu izan duelako; asmatu ez badu ere ekin gabeko faltarik ez duelako, Agur eta Ohore, Jose Luis Alvarez Enparantzari, sorlan eta saioaren eremu latzenei lore eta kolore eman dien txilarrari. ■

Esaten zuela esaten zuela,  
esaten duela esaten.

Batzuentzat gorriegi, besteentzat  
abertzaleegi. Pentsamendua

askatzen asmatu ez duen gizarte  
honetan, beti norbere posizioak

beste baten aurkakotzat bezala

definitzen ohitua dagoen herri

honetan, debekatua bide dago

norberak ez bezala pentsatzen

eta sentitzen dutenak estimatzea

eta maitatzea; oñaztar eta

ganboatarren artean bezala

etsaigoa elur malutak baino

ugariago dela sinistuta